

Patxi Zabaleta

♦ ARALARREKO KOORDINATZAILE NAGUSIA



DANI BLANCO

Nafarroa, euskal lurraldetasunaren gakoa

ZAZPIAK BAT eta “Laurak bat” izan ziren abertzale-tasunak lurraldetasuna aldarrikatzeko erabilitako lelo historikoak. “Hirurak bat” proposamena ere erabili izan da zentzu taktiko batean. Lelo haiek, ordea, aspaldi zaharkituak gelditu zirela ukatzerik ez dago, inoiz bideragarritasunik eduki baldin bazuten; besteak beste, Iparraldeko “probintziak” historiako oroitzapena baizik ez baitira eta Hegoaldean lauretatik has litekeen abiapunturik ez dagoelako. Gaur egun, Hegoaldean bi erkidego autonomiko daukagu eta Iparraldean Lurralde Elkargoaren aldarrikapena da kezka nagusi. Hor dago lurraldetasunaren abiagunea. Izan ere, inor dagoen tokitik besterik ez liteke abia.

Lurraldetasuna, beste edozein helburu politiko bezala, soilik bide eta babes demokratiko zehatzetik lor litekeen xedea da; are gehiago, XXI. mendean eta Euskal Herria dagoen kokagune geografiko-

erabaki eskubidea eskuratzeaz gainera, erabaki esparru bezala aintzat hartua eta aitortua izatea. Estatuak Nafarroari ipinia dio “espainolismoaren” azken trintxera edo muga izateko zeregina eta horixe da “Navarrismoa” deitutakoaren izateko arrazoi bakarra, UPNko fundatzaile Jesus Aizpunek esan ohi zuen bezala. Xede maltzur hori urratzeko bide bakarra da Nafarroa erabaki esparru bezala aitortzea, bertako gizartearen agindu demokratikoa onartuz. Abertzaleon betekizun demokratikoa da lurraldetasun diakronikoa edo abiadura anitzekoa onartzea.

Lurraldetasuna izan da beti ETArekin eta Estatuaren arteko elkarriketa eta negoziaketa ahaleginetan oztopo nagusia. Arnaldo Otegiaren adierazpen liburuko hitzetan argi eta garbi ageri da adibidea: “Nafarroa ez da arazoaren gakoa, baizik aterabidearen giltzarria”. Edo “Nafarroari dagokion edozein aldaketa politikok nafarren onesten zehatza beharko luke”. Baina Loiolan ez zegoen Nafarroako ordezkariarik eta onartu beharra dago Migel Sanzen erantzun harrokoak zirrara sakona lortu zuela Nafarroako gizartean: “Nafarroa ez dago salgai”.

“Navarrismoaren” sena eskubide historikoen edo foruen gorai-pamen mitikoan dago, antzinako abertzaletasunarena bezala. Baina egun, XXI. mendean, eskubide historikoen gaurkotze demokratikoa ezin daiteke erabaki eskubi-

dearen gauzatzea bezala baizik uler. Abertzaletasun guztiak autodeterminazioa edo erabaki eskubidea defendatzen du gaur egun, baina “Navarrismoak” ez eta ezinezkoa zaio, besteak beste, horrekin Espainiako trintxera ezkutua izatez utzi beharko lukeelako.

Beraz, Nafarroako aldaketa politikoan hasiko da lurraldetasun bidaia eta horretarako ezker abertzale osoak zabaldu egin behar du NABAik 2007an eskuratutako emaitzak gaituz. François Hollandek ez zituen Frantziako hauteskundeak irabaziko aurretiko primariorik gabe. ■

Gakoa da Euskal Herriak ez daukala gaur gaurkoz erakunde orokorrik, baldin eta hizkuntzaren arloan Euskaltzaindia ez bada. Nola gauzatu orduan, demokratikoki lurraldetasun aldarrikapena Euskal Herrian? Nondik abiatu?

Hiru esparru politiko autonomikoak hiru erabaki esparru direla onartzetik; hori da abiapuntua eta hori da bidea. Hiru hizkuntza, hiru abiadura eta agian, hiru gizarte dituen euskaldungoaren herriaz mintzatu beharko genuke

politikoan. Gakoa da Euskal Herriak ez daukala gaur gaurkoz erakunde orokorrik, baldin eta hizkuntzaren arloan Euskaltzaindia ez bada. Nola gauzatu orduan, demokratikoki lurraldetasun aldarrikapena Euskal Herrian? Nondik abiatu? Hiru esparru politiko autonomikoak hiru erabaki esparru direla onartzetik; hori da abiapuntua eta hori da bidea. Hiru hizkuntza, hiru abiadura eta agian, hiru gizarte dituen euskaldungoaren herriaz mintzatu beharko genuke.

Iparraldearen erronka Lurralde Elkargoa da. Euskal Erkidego Autonomoarena erabaki eskubidea jasotzen duen estatusa lortzea. Nafarroarena

